

# HERNANIK kronika

2003 urtea  
Iralak 22  
Astelehena  
Alea: 883  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

## SAGAR EGUNA ETA TRIKITILARI GAZTEEN TXAPELKETA



Jende asko izan zen atzo plazan Sagar Egunean eta ahal izan zutenak itzaletan pilatu ziren.



Ikastaroetan egindako bolilloak.

## Emakumearen Zentroak ikastaroak antolatu ditu

EMAKUMEAREN Zentroak aurten ere ikastaroak antolatu ditu eta izena emateko egunak astearte eta asteazkena dira, 16:30etik 18:00etara. Ikastaroak astelehenetik ostegunera dira: pintura eta monpos; pintura eta kristala; josteko lanak (*punto de kruz* eta bainikak); eta bolilloak eta tridimensionalak. Horretaz gain, gimnasia ere badago. Ikastaroak urriaren 6an hasiko dira eta gimnasia dagoeneko martxan dago. □

## Sagardoari trago, beroa freskatzeko

■ Atzo, Sagar Egunean 1.300 baso saldu ziren ■ Trikitilari txapelketa Karrera eta Arteagak irabazi zuten.

ATZO ospatu zen 2003ko Sagar Eguna, eguzkiak ondo berotuta, eta giro ederrean. Tolarea elkarteko 12 sagardo-gileen sagardoak izan ziren Gudarien plazan. Guztira 1.300 baso inguru saldu zituzten. Jendetza haundiarena ordubata inguru horretan izan zen,

eta gehienak itzal muturren bat harrapatzen zuten lekuetan pilatu ziren, pintxoia jan eta sagardoari trago egiteko. Festaren barruan ziren, baita ere, sagar klaseen erakusketa, sagarra biltzeko teknika probatzeko lekua eta denen aurrean sagardoa egiten aritu zen familia ere, bere tolare txiki eta

guzti. Gainera, momentuan egindako zizarra probatzeko aukera izan zuen jendeak eta momentu batzuetan etenik garabe aritu behar izan zuten sagar muztioa jendeari serbitzen.

**Trikitilari gazteen txapelketa**  
Kriskiña dantza taldeak ere atzo antolatu zuen urteroko

Trikitilari gazteen txapelketa eta guztira 6 bikotek hartu zuten parte. Irabazleak Irma Karrera tolosarra eta Amets Arteaga baliarraindarra izan ziren; bigarren Asier eta Oroitz Unsain; eta hirugarren Edurne eta Itziar Errandonea. Egoitz Alkorta eta Leire Aiape hernaniarrak 5garren izan ziren. □



Irma Karrera tolosarra eta Amets Arteaga baliarraindarra.



Sagar Egunean 'kixkia'rekin saiatzeako aukera eman zuten.

## ARRAUNA

## Hernanin arraunean ibilitakoek afaria

ELORRABIN 4 generaziotako arraulariek estropada jokatu zuten eta orain Hernaniko traineruan ibilitako arraunlari guztiak mahai bueltan biltzekotan dabilta. Horretarako urriaren 18an afaria dago jarrita eta Oindi eta Zinkoenea tabernetan eman behar da izena. Epea urriaren 6a da. Afaria non egin erabakitzeko dago oraindik.

Bestalde, Arraun Elkartea laean ari da Hernani bultzatzeko modua bilatzen. Oraindik ez dago ezer erabakita, baina, Elkartea umeekin lan egiteko asmoa du eta ez du baztertzen datorren urtean zerbaite ateratzeko aukera. □

**AITAN - ETHE**  
TABERNA  
EGUNEKO MENÚA

Larramendi 15 - Tel.: 943 55 00 46  
Hernani

**Allianz**  
ASEGURUA  
Agustin Ezponda  
AGENTZIA

Telf.: 943 557 326  
636 735 109

**HERNANI  
HIZKUNTZAK  
ENGLISH**  
Gure Ingelesetxea

Zorionak! Aitziber (bikain), Gari, Ainara, Mikel (bikain), Edurne, Harri, Paul, Jose Luis eta Unai Cambridge FCE edo Advanced azterketa gainditzeagatik.

**MATRIKULA ZABALIK**  
Deitu Alan / Joe

943 33 11 08

KALE NAGUSIA 41, 1

UDAL LIBURUTEGIKO  
INFORMATIKA IKASTAROA

**WINDOWS 98 (4 ordu)**  
**WORD 2000 (8 ordu)**  
**INTERNET (8 ordu)**

Urriaren 6tik 10era (eusk.)  
eta 13tik 17ra (gazt.)  
Azaroaren 3tik 7ra (eusk.)  
eta 10tik 14ra (gazt.)

Informazioa: Biteri Kultur Etxea  
Orduetegia: 16etatik 21etara  
Tlf: 943 551000

Laguntzaileak:

Hernaniko Osasun eta  
Gizarte Ongintzarako  
Udal Patronatua

Europako  
Gizarte  
Fondoa

**BIKAIN**  
OKINDEGI TA GOZOTEGIA

Egunero ogia  
beti bikain

Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089  
Elkano 12 - Tel.: 943 553142  
Orkolaga 19 - Tel.: 943 331487  
20120 Hernani



Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarteak. Errredakzioa, argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak. J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre eta A. Zerai. Egoitza: Larramendi 11. Tel.: 943-330899. Faxa: 943-336306. Eposta: kronika@topagunea.com. Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.



Portuko gazteak mozarroa jantzita ateratzen dira Asto Karreran.

## Portun festetan adinako giroa izan zen larunbateko asto karreran

PONTUN larunbatean jokatu zen 52garren Asto Karrera, San Juan Txiki festetan atzerritu egin behar izan baitzuten. Egun guztiko festa antolatu zuten Portuko auzotarrek asto karreren bueltan, eta jende asko bildu zen ekitaldi guztietan. Bazkaritan 55 lagun izan ziren Ibarrolaburu plazan eta ondoren poteoa egin eta karreari eman zitzzion hasiera.

Zazpi asto ekarri zitzuten antolatzaleek eta 4 karrera egin zitzuten, Portuko plazan hasi, Xangai taberna atzetik

buelta eman, eta ostera plaza. Elizondok 2 karrera irabazi zituen, Leitzak 1 eta Txapetek beste 1. Bukaeran, denak gustora eta datorren urtean, berriz ere San Juan Txikietan egingo da Asto Karrera famatua, eta 53garrena izango da. □

### FUTBOLA

## Gorengoeak 0-1 galdu Santo Tomasen kontra, partidu estu-estua jokatuta

■ Emakumezkoen ligan ere galdu egin zuen Hernanik.

| Emakumezkoak |   |
|--------------|---|
| Hernani      | 0 |
| Zumaiako     | 1 |
| Gorengoeak   |   |
| Hernani      | 0 |
| Santo Tomas  | 1 |

HERNANIKO nagusien bi taldeek galdu egin dituzte asteburu honetako partiduak, biek 0-1, eta biek Zubipen. Atzo Gorengoeak partidu estua jokatut zuten Lizeo Santo Tomas taldearen kontra baina, Lizeok 10

minutuan sartu zuen gola eta Hernanik ez zuen lortu empatazterik.. Hernanik izan zituen bi aukera gola sartzeko baina, donostiarren porteroak harriarri gelditu zituen bi baloiak.

Emakumezkoen ligan, Zumaiako zuen aurrean Hernanik eta 0-1 galdu zuten partidua. zumaiarrek bigarren zatian sartu zuten gola eta hernaniarrek ezin izan zioten bueltarik eman. Marcos Trejoren taldea jendez larri dabil, eta jokatutako bi partiduak galdu ditu. □

### ERRUGBIA

## Miarritzek irabazi, eta Hernani erritmoa hartzen

LAGUNARTEKOAK jokatu zuten larunbatean Miarritzeko juniorrek eta Hernaniko seniorrek. Miarritz gehiago izan zen, baina entrenamendu ona izan zen hernaniarrentzat. Garikoitz Barrio hernaniarrak Miarritzen jokatzen du eta bi entsaio egin zizkion Hernaniri. Defentsan jarri ezinda dabilta hernaniarrak eta erritmoa ere falta zaie, baina, datorren asteako lagunarteko gelditzen zaie, liga hasi baino lehen. □

### IKASTAROAK



EGURRA: Haur eta helduentzat logelak, altzari auxiliarra,...  
TELÀ: Manteleria, kojinak, kordinak, erropak,...  
SEDA: Zapiak, kordinak, kuadroak,...  
ESKAIOLA, ALABASTRINA: Figurak, jaiotzak,...

BERRIKUNTZA: BIDRIO DEKORAZIOA  
Goiz eta arratsalde - Haur eta helduentzat

Irakasleak: Iker VALLE - Oihana INSAUSTI - Pello COELLO



KORTINAK, TOAILAK, TAPETEAK, KUADROAK eta abar egiteko teknika ezberdinak erakusten ditugu:

Punto Cruz, Bainika, Gantxilloa, Bolillo, Punto erdia, zinta puntuoa eta abar...

ENKARGUZKO LANAK ERE

EGITEN DITU

### HITZ BITAN



AHTren kontrako martxa.


### ABIADURA HENDIKA TRENAREN KONTRA

Osiñagara martxan trenaren kontra. Ehun lagungarik Abiadura Hendiko Trenaren kontrako martxa egin zuten larunbatean, Osiñagan barrena. AHT Gelditu ekimenak proiektua berehalako gelditzeko eskatu du eta uste du tren horrek Hernanin eta Urumea bailara osoan kalte larriak ekarri lituzkeela. Era berean, plataformako kideek salatu dute bidean Ertzaintza azaldu eta pertsona bat datuak hartu izana. □



### ASCENSIO ETXEBERRIA ARREGI JAUNA

Atzo hil zen, 82 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartuta.  
-Goian bego-



Haren emaztea: Jesusa Aranburu; seme-alabak: Mertxe eta Pablo eta Koro; bilobak: Haritz eta Maddi; anai-arrebak: Miguel (+), Jose, Bernardo, Ruperto eta Mercedes; ezkon anai-arrebak, bilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezela GAUR, ASTELEHENAK, arratsaldeko ZAPPIETAN, JUAN BATAIATZAILEAREN parroki elizan, gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2003ko irailaren 22an

Helbidea: Larramendi, 9 - 4.C

Oharra: Gorputua Zaharren Egoitzako Tanatorioan dago.



### AGUEDA BERACIERTO AGUIRRE ANDREA

(Jose Manuel Arizkorretaren alarguna)  
Herenegun hil zen Hernanin, 81 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkazioa hartuta.  
-Goian bego-



Haren seme-alabak: Arantxa eta Aurelio Olariaga, Begoña eta Juancho Bilbao, Iñaki eta Pili Garcia; bilobak: Leire, Aitor, Maider, Nagore, Iñigo eta Xabier; lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezela GAUR, ASTELEHENAK, arratsaldeko ZAPPIETAN, JUAN BATAIATZAILEAREN parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2003ko irailaren 22an

Helbidea: Elkano 1 - 4.B

### ZERBITZUAK

#### TELEFONOAK

Taxiak:

943 550093

Udaltsaingoa:

943 333288

DYA:

943 464622

Anbulatorioa:

943 006666

Jokalari anonimoak:

943 331103

#### FARMAZIAK

##### ASTELEHENAK

Egunez: Etxebeste

Elkano 2

943 552087

Gauez: Atxa-Orbea

Lasarte. Hipodromo 6

943 363549

##### ASTEARTEA

Egunez: Bilbao-Sagas.

Urbia 7

943 552941

Gauez: Urbistondo

Lasarte. S Francisco 1B

943 366567

### IRAGARKI MERKEAK

Pisu konpartitu bila nabil. Interesatuek deitu arratsaldeko 18:00etatik aurrera telefono honetara: 652 737144

Neska edo emakume bat behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943-556355/943-550752

Pertsona bat behar da astean bitan etxea garbitzeko, (6 ordu denera) 656-705243

**brintza**

Brintza, S.L.

Lan aholkularitzarik  
Aholkularitzarik fiskalak  
Aseguruak, Inbertsioak

Juan de Urbia 15  
Tel.: 943 331267  
Faxa: 943 330892  
20120 Hernani

**ETXE ONENAK, S.A.**

GARAJE ITXIAK

"OBLATOS" ETAN SALGAI

Informatu eta saldu:  
943 33.22.37